

**A.- Entzumena**

1.	Gai izatea eguneroko elkarrizketak jarraitzeko, (gaia ezaguna edo alde aurretik landuta bada) argi hitz egiten dutenean; nahiz eta batzuetan hitz edo esaldi berezi batzuk errepikatzeko eskatu behar duen.	<i>Gai hauetaz, adibidez: sukaldaritza, ohiturak, harreman pertsonalak , txikitako kontuak, biografiak...</i>
2.	Gai izatea eztabaidak oro har jarraitzeko, baldin eta argi eta hizkera estandarrean hitz egiten badute.	<i>Adibidez: pertsonena arteko gai bati buruzko iritzi berdinak eta ezberdinak ulertzea (lan munduaz, politikaz, gai ekologikoez...), aldeko eta aurkako argudioez jabetzea,</i>
3.	Gai izatea narrazio laburrak entzuteko, eta jarraian gertatuko denaz hipotesiak egiteko.	<i>Adibidez gertakizunak deskribatzen dituzten kontakizun laburrak, benetakoak zein irudimenenezkoak ulertzea: egunerokoak, ipuinak , ametsak, istripuak, ezbeharrak...</i>
4.	Gai izatea puntu nagusiak ulertzeko irratie-emanaldi batean edo grabazio sinpleetan, gaia interes pertsonalekoa denean, baldin eta nahiko astiro eta argi hitz egiten badute.	<i>Adibidez berriak: bilerak, hitzaldiak, ikastaroak, istripuak, ospakizunak, gertaerak. Kronikak: kontaketa historikoak, prentsa albisteak, artikulua, berriak, editorialak. Elkarrizketak: informazioa ematea, lana, asmoak, proiektuen aurkezpenak, gatazkak konpontzekoak. Erreportajeak: informazioa emateko artikulua, pertsonen iritziak, elkarrizketak, eguraldia, errepideen egoera, EHko eta nazioarteko berrien nondik-norakoa ...</i>
5.	Gai izatea bere intereseko telebista-programen haria jarraitzeko, hizkera nahiko geldia eta argia denean.	<i>Adibidez: kirol emanaldiak, hurbileko gaiak lantzen dituzten magazinak, , telebista programen sailkapena, ...</i>
6.	Gai izatea informazio tekniko sinpleak ulertzeko (esaterako, tresna arruntak erabiltzeko argibideak).	<i>Adibidez: telefonoak eta elektratresnak...</i>
7.	Gai izatea eguneroko arazoekin zerikusia duten grabazio laburren informazio nagusia ulertzeko, astiro eta argi hitz egiten denean.	<i>Adibidez: langileen eskaerak eta arazoak, etxebizitzaren gora-beherak, pertsonen arteko arazoak,...</i>
8.	Gai izatea telebistan agertzen diren gertaera, istripu, eta horrelako berrien mamia identifikatzeko, baldin eta irudi argiak agertzen badira.	

**B.- Irakurmena**

1	Gai izatea egunkariko artikulua laburren puntu nagusiak ulertzeko, gaiak arruntak edo ezagunak direnean.	<i>Ad: prentsan edota aldizkarietan agertzen ahal diren gaiak: kirolak, istripuak, lanaren ingurukoak, ospakizunak, agenda kulturalak, toki batean gertatutako bitxikeriaren bat...</i>
2	Gai izatea elkarrizketak irakurtzeko egunkari eta aldizkarietan, eta testuaren esanahi orokorraz jabetzeko.	<i>Ad: pertsona batek bere bizipenak kontatzen dituenean, pasadizoak, beti ere gai zientifiko edota sobera zehatzak ez direnetan. Elkarrizketa mota ezberdinak: informazio ematekoak, lan elkarrizketak, asmo edo proiektuen elkarrizketak, gatazkak konpontzekoak, sentsibilizaziozkoak...</i>

3	Gai izatea, testuinguruaz baliaturik, hitz ezezagunen esanahia asmatzeko, eta esaldien esanahia ulertzeko, gaia ezaguna bada.	<i>Horretarako estrategia ezberdinen ezaguerak: aurretiko ezagutza, ezagutza komuna edo kulturala, hitz eratoraketa, sinonimia eta inferentziak egiteko gaitasuna.</i>
4	Gai izatea testu laburrak gainbegiratzeko (adib. albiste-laburpenak) eta puntu eta informazio nagusia aurkitzeko (adib. norik egin duen zer eta non).	
5	Gai izatea eguneroko esku-paperetan agertzen den informazio nagusia ulertzeko	<i>Adibidez antolatzaileen helburua, ekintzen nondik-norakoa, tokia, lerro buruak eta leloak ulertzea...</i>
6	Gai izatea eskutitz pribatuetan, gertaera, sentimendu eta desio-azalpenak nahiko ondo ulertzeko. Orobat, gai izatea gutun bati erantzuteko.	<i>Adibidez identifikatzea nola sentitzen den idatzi duena eta zer sentitzen dugun irakurtzean.</i>
7	Gai izatea zerbitzuen eta tresnen argibide sinpleak ulertzeko (telefono publikoenak, adibidez).	
8	Gai izatea argi egituraturako istorioen argumentua ulertzeko, oso luze edo korapilatsua ez bada.	<i>Adibidez filma baten laburpena, ipuin bat, narrazio orokor bat...</i>

### C.- Elkarreragina (elkarrizketa)

1	Gai izatea aurrez aurreko elkarrizketa sinpleak hasi, mantendu eta amaitzeko, gaia ezaguna edo interes pertsonalekoa denean.	<i>Adibidez gai izatea nor den, zer egiten duen eta zer egiteko asmoa duen hainbat arlotan: lanean sartzeko proba batean, ikaskide ohiekin, dendetan, zaletasunez hitz egitean... beti ere tonu egokia erabiliz eta txandak errespetatuz, eta kontuan hartuz solaskideak dioena.</i>
2	Gai izatea garraio publikoak erabiltzeko (autobusak, trenak eta taxiak), oinarriko argibideak eskatzeko edo txartelak erosteko.	
3	Gai izatea elkarrizketan edo eztabaidan jarduteko, baina batzuetan zaila izan liteke esan nahi lukeena ulertzea.	<i>Adibidez. Antzeko hizkuntza maila dutenen arteko adostasuna/desadostasuna azaltzeko gaitasuna, beti ere gai sakonetan (politikoak, polemikoak edota konprometituak) sartu gabe. Gai izatea bere tesia edo ideiak defendatzeko, eztabaidak ongi antolatzeko: azalpena (argi eta laburra), argudiatzea (arrazoiak ongi azalduta) eta ondorioa (egiaztatzen tesia edo iritziak)</i>
4	Gai izatea txukun moldatzeko bidaia baten erreserba agentzian egiterakoan, edo bidaiari bertan gerta daitezkeen gora-beheretan.	
5	Gai izatea mapa edo plano baten gainean bidea galdetzeko edota adierazteko	<i>(oinez, autoz...)</i>
6	Gai izatea helbide bati buruzko xehetasunak galdetzeko eta ematen dizkidaten azalpen xeheak jarraitzeko.	<i>Gai izatea kortesiazko adierazpide, eskaerak egiteko modu ezberdin eta eskerrak emateko moduak ulertzeko eta erabiltzeko.</i>
7	Gai izatea sentimenduak adierazteko ikasitako esapideak erabiltzeko, hala nola	

	harridura, poza, tristura, jakin-mina edo ezaxola. Gai izatea, halaber, sentimenduok beste norbaitek adierazten dituen erantzuna emateko.	
8	Gai izatea bere ikuspuntu eta iritziak azaltzeko, lagunekin edo ezagunekin hitz egiten duenean.	
9	Gai izatea ados dagoela edo ez dagoela edukazioz adierazteko.	

**D.- Ahozko adierazpena**

1	Gai izatea istorio hurbilak edo bere interesekoak kontatzeko.	<i>Adibidez ikasleei gertatutako pasadizoak, baita bere ingurukoei gertatutakoak ere, istorio biografikoak, bidaiak... lagun arteko giroan edota hizkuntza maila altuagoa dutenekin, aspektu egokia erabiliz eta ñabarduretan sartu gabe.</i>
2	Gai izatea bere ametsak, itxaropenak eta helburuak azaltzeko.	<i>Amestutako jende, lekuak eta egoerak, afektibitatea lantzeko, pertzepzio baloreak lantzeko (arreta, hiztegia, oroimena, pentsamendua), dibertitzeko, eta komunikazioa eraginkorra izateko.</i>
3	Gai izatea bere planak, asmoak eta ekintzak azaltzeko eta horien zergatiak emateko	<i>Adib: bihotz kontuak, kultur kontuak... hainbat esparrutan: lanean, lagunartekoetan, familiartekoan... aspektu egokia erabiliz eta ñabarduretan sartu gabe.</i>
4	Gai izatea liburuen edo filmen argumentuak kontatzeko eta bere inpresioak deskribatzeko.	
5	Gai izatea testu idatzien pasarte laburrak sinpleki ahoz kontatzeko, jatorrizko testuaren hitzak eta ordena erabiliz.	<i>Ahoz komunikatzeko gai izatea maila honi dagokion hitz jariora erabiliz, ongi ahoskatuta modu ulergarri batez sobera monotonoa izan ez dadin (ahoskera eta intonazioa)</i>
6	Gai izatea esperientziak zehatz azaltzeko, aldi berean sentimenduak eta arrazoiak deskribatuz.	<i>Adib. Anekdotak, lan kontuak, etxeoak, atzerriko esperientziak, eskolan, bakarrik, leku publikoetan...</i>

**E.- Hizkuntza-kalitatea eta baliabideak**

1	Gai izatea elkarriketan era ulergarrian jarduteko, baina etenaldiak egin behar ditu esaten ari dena pentsatu eta zuzentzeko, bereziki luze eta aske hitz egiten duenean.	
2	Gai izatea aldian aldiko informazio sinplea emateko, puntu nagusiak nabarmenduz.	<i>Adibidez berari edota bertze pertsona bati gertaturiko zerbait, irakurri edota ikusitako zerbait... horretarako hizkuntzak dituen baliabide ezberdinak erabiliz (omen, ote, adbertsatiboak, adibideak emateko lokailu egokiak)</i>
3	Badauka behar adinako hitz-altxorra bere eguneroko gai gehientsuenak adierazteko,	<i>hala nola familia, zaletasunak eta interesak, lana, bidaiak, eguneroko</i>

	batzuetan perifrasiak erabili behar baditu ere.	<i>gertaerak</i>
4	Gai izatea egoki samar hitz egiteko ohiko egoeretan edota aurreikus litezkeen egoeretan.	<i>Ad: ikaslea norbaitekin topatzen denean edota hitzordua duenean, irakasle zein ikasle ohiekin, merkataritza eta azoketan zerbait galdetu edota eskatzeko... egoerak eskatzen dituen hitzak, hizkuntz formak eta intonazioa erabiliz.</i>

**F.- Idazmena**

1	Gai izatea jasotako heziketari, lanari, interesei edota bere trebetasunari buruzko galdera-sorta bati erantzuteko.	<i>Ad: lan baterako, familia giroan, lagunartean...</i>
2	Gai izatea gutun batean bere burua aurkezteko, (adib. familia, eskola, lana, zaletasunak).	<i>Adibidez jatorria, txikitako pasadizoak, oraingo kontuak, arazoak, gertaera zoriontsuak, ospakizun bereziak, bizi izandako lekuak, ezbeharrak, pertsonen arteko harremanak...</i>
3	Gai izatea gertaera baten orden kronologikoa adierazteko lokailu nagusiak erabiliz ("lehenik", "gero", orduan", "ondoren", "beranduago").	<i>Adibidez errezetak eta hainbat ekintzaren nondik-norakoak prozedura konplexu samarra denean: kotxea martxan jartzea, gurgila aldatzea...</i>
4	Gai izatea gustuko arloetan testu sinple eta koherenteak idazteko, baita bere ikuspuntuak eta iritziak emateko ere.	<i>Ad: kirol / zaletasunen ingurukoak</i>
5	Gai izatea esperientziei edo gertaerei buruzko testu sinpleak idazteko, eskolako edo elkarte bateko egunkarirako.	<i>esaterako, bidaia bati buruzkoak</i>
6	Gai izatea lagunentzako edo ezagunentzako eskutitz pertsonalak idazteko, berriak eskatuz, berriak emanez edo gertaerak kontatuz.	<i>Adibidez familia,lan, hiri, lagunarteko arloetan</i>
7	Gai izatea eskutitz pertsonaletan, filmen edo liburuen argumentuak kontatzeko edo kontzertu baten herri emateko.	
8	Gai izatea iragarki bati idatziz erantzuteko edota produktu bati buruzko informazio osatuagoa edo zehatzagoa eskatzeko	<i>auto bat edo ikastaro bat, adibidez</i>
9	Gai izatea curriculum vitae labur bat idazteko, taula moduan besterik ez bada ere.	

**G.- Estrategiak**

1	Gai izatea besteek esandakoa errepikatzeko, horrela elkar ulertzen dugula egiaztatzeko.	
2	Gai izatea besteek esandakoa zehatzago edo argiago azal dezala eskatzeko.	
3	Gai izatea, nahi duen hitza aurkitzen ez badu, antzeko esanahia duen hitza erabiltzeko eta "zuzenketa" eskatzeko	